

M_{LH3}

2018-2019

Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**


Lehen Hezkuntzako 3.a



1. zatia



45 minutu dituzu probaren
lehen zati hau egiteko.



Argibideak

Lehen ariketan, ozenki irakurriko dira zenbait problema, bata bestearen ondotik, denbora emanek zuk erantzuna idazteko behar den tokian.

Gero, testu batzuk irakurri beharko dituzu eta galderak erantzun irakurri duzunari buruz. Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko, eta aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu, eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Adibidez:

Zenbat da $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- ☒ C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

Zenbat da $2 + 5$?

- ☒ A. 2
- B. 6
- ☒ C. 7
- D. 11

Soilik idatzi beharko dituzu **eragiketak** hala egitea adierazten dizuten galderetan. Haietan lauki hau bezalako bat ageri da:

Eragiketak:

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.

.....

1.- Buruzko kalkuluko ariketa.

	Erantzuna
A kalkulua	45 kromo
B kalkulua	48 kromo
C kalkulua	55 kromo
D kalkulua	1100
E kalkulua	54
F kalkulua	5

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.
3	6 erantzun zuzen.

Bisitariak Nafarroan

Bisitari gehienek turismo bulegoetara jotzen dute informazioa nahi dutenean.



- 2.- Orreagako turismo bulegora berrogeita bederatzi mila zazpiehun eta berrogeita zortzi bisitari joan ziren. Idatzi kopuru hori zifretan.

..... **49 748**



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zuzen idatzi du 49 748 zenbakia.

- 3.- Tuterako turismo bulegora joan ziren bisitarien kopurua 41 080 zenbakiaren aurrekoa da. Zenbat bisitari joan ziren Tuterako bulegora?

..... **41 079**



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zuzen idatzi du 41 079 zenbakia.

- 4.- Irudian agertzen den zenbakiaren deskonposizioak Erriberriko bulegora joan ziren bisitarien kopurua adierazten du.

Zenbat bisitari joan ziren Erriberrira?

- A. 5914
- B. 50 914
- C. 59 014
- D. 59 104



- 5.- Otsagabiako bulegora 39 514 bisitari joan ziren.

Borobildu bisitari kopurua hurbilen dagoen ehunekotara.

- A. 39 500
- B. 39 510
- C. 39 520
- D. 39 600



- 6.- Zangozako bulegora 27 853 bisitari hurbildu ziren.

- a) Zein da 8 zifraren balioa batekotan?

8 zifraren balioa batekotan

..... **800** bateko da.

- b) Zein da 8 zifraren balioa hamarrekoetan?

8 zifraren balioa hamarrekoetan **80** hamarreko da.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
0,5	Erantzun zuzen bat.
1	Bi erantzunak zuzenak dira. Erantzun zuzenak: a) 800 b) 80

7.- Ondorengo arrasto hauek jarraituz, asma ezazu egun batean Uxuera joan ziren bisitarien kopurua zenbatekoa izan zen:

- 250 baino handiagoa eta 500 baino txikiagoa den zenbakia da.
- Zenbakiaren zifra guztiak biderkatzen badira, emaitza 6 da.
- Hamarrekoen zifra batekoen zifra baino handiagoa da.



Egun batean Uxuera **3** **2** **1** bisitari joan ziren.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	321 zenbakia idatzi du.

- 8.- Begira ezazu taula eta adierazi X batekin eragiketak zuzenak edo okerrak diren:

Adierazpenak	Eragiketak	Zuzena	Okerra
9 bisitariko 8 talde.	$8 \times 9 = 63$		X
36 bisitariren herena.	$36 : 3 = 18$		X
20, 35 eta 15 bisitariko 3 autobus.	$20 + 35 + 15 = 70$	X	
Bi zifrako zenbakirik handiena baino 12 bisitari gutxiago.	$99 - 12 = 87$	X	
Talde batetik 15 bisitari joan dira eta, beraz, 50 bisitari gelditzen dira.	$35 - 15 = 50$		X
6 bisitariren bikoitza baino hiru bisitari gehiago.	$6 \times 2 + 3 = 15$	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 edo 5 erantzun zuzen.
2	6 erantzun zuzen.

- 9.- Lizarrako turismo bulegoko gidariak biderketa bat egin behar du bisitari-kopurua zein izan den jakiteko:

$$367 \times 8 =$$

Egin ezazu biderketa.


$$\begin{array}{r} 367 \\ \times 8 \\ \hline 2936 \end{array}$$



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	2936 da erantzuna.

- 10.- Erriberriko Jauregiko atezaina kalkuluak egiten ari da. Sarrera zenbatek ordaindu duen jakin nahi du, bisitari horietako batzuk gonbidapenarekin sartu baitziren. Osa ezazu kenketa hau.

$$\begin{array}{r} 4153 \\ - 278 \\ \hline 3875 \end{array}$$



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena.

- 11.-** Turismo bulego bateko langile batek 2388 liburuxka banatu behar ditu kopuru bereko sei multzotan. Egin ezazu zatiketa hau multzo bakoitzean zenbat liburuxka jasoko diren jakiteko.

$$\begin{array}{r}
 2388 \\
 6 \overline{) 2388} \\
 \underline{398} \\
 3980 \\
 \underline{3980} \\
 0
 \end{array}$$



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zatidura 398 eta hondarra 0.

Jende askok bisitatzen du
Donostiako Aquariuma.



- 12.- Hugo izeneko haur bat, eta haren 2 lehengusu eta 4 lehengusina Aquariumera joan dira hiru helduk lagunduta. Neska-mutiko guztiek bost urtetik gora dituzte. Zenbat euro balio dute sarrera guztiek?

TARIFAK		
HELDUAK 13 €	ADINGABEAK 0 - 3 urte DOAN	ADINGABEAK 4 - 12 urte 6 €

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

A metodoa: $(13 \times 3) + (6 \times 7) = 81$ euro

B metodoa: $13 + 13 + 13 + 6 + 6 + 6 + 6 + 6 + 6 + 6 = 81$ euro

Sarrera guztiek **81** euro balio dute.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 13.- Ezkerreko akuarioan 168 arrain daude. Eskuineko akuarioan ezkerrekoan baino 19 arrain gutxiago daude. Zenbat arrain daude bi akuarioetan, guztira?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

A metodoa: $168 - 19 = 149$; $168 + 149 = 317$ arrain

B metodoa: $168 + 168 = 336$; $336 - 19 = 317$ arrain


Bi akuarioen artean **317** arrain daude, osotara.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 14.-** Aquariumak badu proiektzio-areto bat. Joan den igandean bisitari asko bertaratu zen, eta aretoko eserleku guztiak bete ziren. Aretoa 119 eserleku daude, eta 7 lerro, eserleku-kopuru berarekin.



Idatz ezazu zer kalkulu egiten aritu den Hugo honako eragiketa hau egin duenean:



Hugo kalkulatzeko aritu da.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Idatzi du honako erantzun hauen antzeko erantzuna: • Lerro bakoitzeko eserleku-kopurua. • Lerro batean dauden eserlekuak. • Lerro batek 17 eserleku dituela. • Lerro batean 17 eserleku daudela. • ...

- 15.-** Akuario handitik 96 arrain hartu dituzte. Horietatik 28 arrain eraman dituzte Bartzelonako Aquariumera eta gainerakoak, berriz, 4 akuariotan banatu dituzte, zati beretan. Zenbat arrain utzi dituzte 4 akuarioetako bakoitzean?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$96 - 28 = 68$$

$$68 : 4 = 17 \text{ arrain}$$


Lau akuarioetako bakoitzean **17** arrain utzi dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 16.- Begira ezazu taula. Donostiako Aquariuma bisitatu duten talde kopuruaren datuak dituzu.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Talde kopurua	16	28	40	32	36

Osa ezazu barra-grafiko hau taulako datuekin.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Diagramaren barra guztiak zuzen daude (behar den altuera dute).

17.- Beha itzazu irudi hauek eta Donostiako Aquariumean saltzen dituzten objektu batzuen prezioa.



Idatz itzazu zenbat objektu dauden hurrengo taulako laukitxo bakoitzean.

	10 € baino gutxiago	11 eta 20 € artean	20 € baino gehiago
Liburuak	0	2	3
Pelutxeak	2	3	2
Osagarriak	1	0	1

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 6 erantzun zuzen.
1	7 – 8 erantzun zuzen.
2	9 erantzun zuzen.
Oharra: zero zifrari dagokion laukitxoa hutsik uzten badu, zuzentzat ematen da.	




LEHEN ZATIA BUKATU DUZU

**Ez joan hurrengo orrialdera
irakasleak agintzen dizun arte.**

M_{LH3}

2018-2019



Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 3.a

2. zatia



45 minutu dituzu probaren
bigarren zati hau egiteko.

Supermerkatuan

Maialen supermerkatura joan da bere aitarekin eta amarekin etxerako zenbait artikulua erosteko.



- 18.- Maialenek eta bere gurasoek 5 km eta 400 metro egin dituzte goizean etxetik supermerkatutako bidean. Arratsaldean beste errepide batetik itzuli dira etxera, eta 4 km eta 600 metro egin dituzte. Goizean arratsaldean baino zenbat metro gehiago ibili dira?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$5 \text{ km } 400 \text{ m} = 5400 \text{ m} ; 4 \text{ km } 600 \text{ m} = 4600 \text{ m}$$

$$5400 - 4600 = 800 \text{ m}$$

Goizean **800** metro gehiago ibili dituzte arratsaldean baino.


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

19.- Maialen eta bere familia supermerkatura autoan joan dira, 5 toki dituen auto txiki batean. Adierazi zein den zure ustez autoaren luzera.

- A. 1 metro eta erdi.
- B. 4 metro.
- C. 6 metro eta erdi.
- D. 7 metro.



20.- Supermerkatuko kafetegian gosalduta. Amak 50 euroko billete batekin ordaindu du gosaria. Hurrengo irudian ageri diren billeteak eta txanponak itzuli dizkiote:



Zenbat ordaindu du gosariagatik?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$10 + 10 + 5 + 2 + 1 = 28 \text{ (kalkulua buruz egin dezakete)}$$

$$50 - 28 = 22 \text{ euro}$$

Gosariagatik **22** euro ordaindu ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

21.- Maialenen aita esne-kutxetako iraungitze-datak begiratzen ari da.



Zein esne-kaxa iraungitzen da lehenik?

- A. Erdigaingabetua.
- B. Osoa.
- C. Gaingabetua.
- D. **Laktosarik gabea.**

22.- Irudian ageri dira erosi dituzten botila batzuk. Irudiko botila guztiek, guztira, zenbat litro egiten dituzte?

				
3 litro	1 litro	Litro erdia	5 litro	1 litro eta erdi

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$3 + 1 + 0,5 + 5 + 1,5 = 11 \text{ litro}$$

Irudiko botila guztiek, guztira, **11** litro egiten dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako unitatean.

23.- Erosi behar dituzten fruta batzuk pisatzen ari da Maialen. Maialenek badaki bi laranjek pisu bera dutela. Ikus itzazu irudiko pisaldiak. Zenbat gramo pisatzen ditu laranja batek?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:


$$760 - 340 = 420$$

$$420 : 2 = 210 \text{ gramo}$$

Laranja batek **210** gramo pisatzen ditu.


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin eta kalkuluetan hutsegite <u>bakarra</u> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako unitatean.

- 24.-** Arrandegira iritsi denean, Maialenek ikusi du hormako erlojuak hamaikak eta hogeita bost markatzen zuela. 20 minutu eman dituzte han. Marraztu itzazu erlojuaren orratzak, eta adierazi arrandegitik zer ordutan atera diren.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bi orratzak ez daude zuzen jarrita.
1	Bi orratzak zuzen daude jarrita; hamabiak laurden gutxi (11:45) adierazten dute.

25.- Maialenen amak lau soka desberdin erosi ditu. Begira ezazu taula jakiteko soka bakoitzaren ezaugarriak zein diren.

	Kolorea	Luzera
	Gorria	6 m eta 30 cm
	Urdina	620 cm
	Grisa	5 m eta 80 cm
	Berdea	590 cm

a) Esan ezazu zentimetrotan zenbat neurtzen duen soka gorriak.

.....

b) Osa ezazu:

Soka berdeak metro eta zentimetro ditu.

c) Zenbat zentimetro gehiago neurtzen ditu soka urdinak soka grisak baino?

.....

d) Zenbat zentimetro gutxiago neurtzen ditu soka berdeak soka gorriak baino?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0,5	Erantzun zuzen bat.
1	2 erantzun zuzen.
1,5	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen; hauexek: a) 630 cm b) Soka berdeak 5 m eta 90 cm ditu. c) 40 cm d) 40 cm

- 26.-** Etxerako bidean, Maialen eta gurasoak autoan kontu kontari denbora pasa dute. Esan ezazu X baten bidez ondoko baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Hiru aste 15 egun dira.		X
120 minutu, bi ordu dira.	X	
Hiru "ordu laurden" 50 minutu dira.		X
Dutxa hartzeko zenbait minutu behar dira.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0 – 1	0,25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

Parkeak

Herri eta hiri askotan parkeak daude.

Parke batzuetan animalia desberdinak daude. Parke batzuk nabarmentzen dira landareen formengatik, koloreengatik...




27.- Begira ezazu parke bateko bizikletentzako aparkalekua. Begira ezazu bizikletaren aurreko gorpila non dagoen kokatuta.




Nolakoak dira nabarmendu diren lerro bertikalak elkarren artean?

- A. Perpendikularrak.
- B. Paraleloak.
- C. Ebakitzailleak (sekanteak).
- D. Perpendikularrak eta paraleloak.

28.- Begira ezazu zuhaixka, ezkerreko irudian, eta teilatua, eskuineko irudian.



Zuhaixka




Teilatua

Zer gorputz geometrikoren antza dute?

- A. Konoa eta triangelua.
- B. Zilindroa eta piramidea.
- C. Zilindroa eta triangelua.
- D. **Konoa eta piramidea.**

29.- Iruñeko Takonerako parkeko orein batzuk ageri dira irudian.




Osa itzazu esaldi hauek, eta esan zein den letra zuzena:

- a) ☒ E oreina bazara, ☐ oreinaren atzean zaude.
- b) ☐ oreina bazara, ☒ D oreinaren aurrean zaude
- c) ☒ C oreina bazara, ☐ oreinaren eskuinean zaude.
- d) ☐ oreina bazara, ☒ A oreinaren ezkerrean zaude

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0,25	Erantzun zuzen bat.
0,50	2 erantzun zuzen.
0,75	3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen; hauexek: a) B. b) B. c) D. d) D.

30.- Begira ezazu herriko parke baten irudia.



Osasu ezazu taula, lehen lerroko adibidean bezala:

Figura geometrikoaren izena	Irudiko figura-kopurua
Karratua	1
Laukizuzena	2
Zirkulua	4
Triangelua	4
Erronboa	2

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0,5	Erantzun zuzen bat.
1	2 erantzun zuzen.
1,5	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen. Erantzuna zuzentzat hartzeko, batetik, figuraren izena jarri behar da, eta, bestetik, esan behar da zenbatetan errepikatzen den.

Lehen Hezkuntzako 3.a MATEMATIKA gaitasuna				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazioa, gehienez
Buruzko kalkulua	1	Irekia	-----	3
Bisitariak Nafarroan	2	Irekia	-----	1
	3	Irekia	-----	1
	4	Itxia	C	1
	5	Itxia	A	1
	6	Irekia	-----	1
	7	Irekia	-----	1
	8	Irekia	-----	2
	9	Irekia	-----	1
	10	Irekia	-----	1
	11	Irekia	-----	1
Aquariuma	12	Irekia	-----	1
	13	Irekia	-----	1
	14	Irekia	-----	1
	15	Irekia	-----	1
	16	Irekia	-----	1
	17	Irekia	-----	2
Supermerkatuan	18	Irekia	-----	1
	19	Itxia	B	1
	20	Irekia	-----	1
	21	Itxia	D	1
	22	Irekia	-----	1
	23	Irekia	-----	1
	24	Irekia	-----	1
	25	Irekia	-----	2
	26	Irekia	-----	1
Parkeak	27	Itxia	B	1
	28	Itxia	D	1
	29	Irekia	-----	1
	30	Irekia	-----	2
Guztira				36